

2203771 jarduera

1- Entzun aurretik

1.1 Gezur txikiak



Gezurak ez omen dira esan behar. Ezta gezur txikiak ere. Hori esan ohi digute beti. Baina, beti-beti egia esatea ere...Nork ez du gezur txikiren bat esan inoiz? Adibideei jarraituz, esan noiz erabili ohi ditugun hurrengoak eta beste bi adibide gehiago eman ikasgelan partekatzeko.



Gezur txikia	Noiz esan?
<i>“Denbora behar dut”</i>	Bikote batean, gauzak ondo ez doazenean, benetako arrazoi gordina ezkutatzeko askotan.
<i>“Gehiagotan geratu behar dugu”.</i>	Aspaldi ikusi ez dugun pertsona bat kalean aurkitu, momentu batean berarekin hizketan egon, eta hizketaldia ondo bukatzeko.
<i>Kaixo, aspaldiko! Mejoratu egin zara.</i>	-
<i>Banoa, e! Etxetik ateratzen ari naiz oraintxe bertan.</i>	-
-	-
-	-

1.2 Gezur txikiak komentatu



Partekatu taldean ariketan idatzitako adibide eta egoerak. Ondoren, gogoeta egin: zer lortzen da gezur horiek esanda?

Adib. :

- *Nik uste dut ez duela merezi gezurretan aritzea. Azkenean, egia esaten bukatu behar duzu gehienetan eta orduan zeu zara gaizki pasako duena.*



* *Ba nire ustez, guztiz beharrezkoak dira...*








2203771 jarduera

2- Entzun bitartean

2.1 Jon gezurretan

   Jon gezurretan harrapatu du Jonek. Entzun elkarrizketa eta idatzi zein gezur erabili duen eta Jone nola konturatu den. Komentatu zure ikaskidearekin ea biok ados zaudeten.

2.1 Jon bankuekin haserre

   Jon ez dago gustura bankuarekin. Elkarrizketan entzundakoaren arabera, esan egia  ala gezurra  diren esaldiak:

- Jon kontu korrontea ixtera joan da eta azkenean, txartel berri batekin atera da bankutik
- Kostata izan arren, azkenean lortu du berak nahi zuena
- Jonek banku desberdinetan zeuzkan kontuak baina banku batekoak bakarrik itxi ditu
- Diru guztia atera eta eskaintza hobea egiten zion beste banku batera eraman omen du
- Joni jasangaitzak egiten zaizkio bankuetako burokrasia eta zurikeria
- Kontuak ixtea erabaki du ez zaiolako bidezkoa iruditzen edozein eragiketa egiteagatik kobratzea
- Bere aitaren lehengusuak sarritan deitzen zion komisioak kobratu behar zizkiotela abisatzeko
- Dirua atera eta kontuak itxi behar zituela jakin dutenean, bankukoek eskaintzak egiten hasi omen zaizkio baina berak ez ditu onartu
- Bera gustura biziko litzateke kontu korronterik gabe baina badaki gauza askotarako behar-beharrezkoak dituela
- Kreditu txartelek eta kontu korronteez ez dute gastu handirik izaten hilero, halere, berak ez du xentimorik ordaindu nahi.

3- Entzun ondoren

2203771 jarduera

3.1 Gezurretan harrapatuta



Jon gezurretan harrapatu du Jonek gaurko saioan. Tamalez, Jonen erreakzioa zein izan den jakin gabe geratu gara. Nolakoa izango da bien arteko elkarriketa hortik aurrera?

Eginkizuna: Bikoteka jarri eta prestatu elkarriketaren jarraipena. Ondoren, talde handian antzeztu. Ea zein den ikasgelako elkarriketarik dramatikoena!



Idea hartzeko, ikusi Goenkaleko atal batean Agurtzanek bere bikotekide Martxelo gezurretan harrapatu eta gero, bien artean sortutako elkarriketa. Ikusi aurretik, irakurri elkarri botako dizkietenak eta adierazi nork esango dituen, Agurtzanek ala Martxelok. Ondoren, egiaztatu egin duzuna [bideoa](#) ikusiz.



Nork esan du?

Idatzi ondoan nork esan duen: Agurtzane edo Martxelo

- *Isilik geratzen zara? Ez al didazu ezer argitu behar?*
- *Gauzak bere onetik ateratzen ari zara*
- *Badakit zaila dela sinisten, baina...*
- *Ixo! Gezur gehiagorik ez.*
- *Ez da zuk uste duzuna.*
- *Ez, hori ez da horrela. Begira, lasaitu egin behar duzu.*
- *Buelta asko eman dizkiot buruari, eta orain oso garbi ikusi dut, oso garbi ikusi dut.*
- *Mesedez, nahiago dut Txanogorritxoren ipuina!*
- *Ez zaitut etxe honetan gehiago ikusi nahi! Ospa!*
- *Utzi bakean, utzi iezadazu*
- *Hobe dut hemendik joatea.*